

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Justizia Administrazioak espediente eta jakinarazpen judizialak eskuratu ahal izateko Internet bidezko sistema bat ezarri du

Abokatu eta prokuradoreentzako da batez ere eta apirilaren 5ean jarriko da abian Probintzia Auzitegian

Jueves, 31 de marzo de 2011

Lehen presidenteordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, Javier Caballero, Nafarroako Justizia Auzitegia Nagusiko presidentea, Juan Manuel Fernándezek eta Iruñeko abokatuen eta prokuradoreen elkargoetako dekanok, Alfredo Irujo eta Jesús de Lamak, hurrenez hurren, hitzarmen protokoloa sinatu dute gaur goizean. Hitzarmen horren bidez Nafarroako epaitegi eta



Alfredo Irujo, Juan Manuel Fernández, Caballero presidenteordea eta Jesús de Lama lankidetzako protokoloa sinatzen

auzitegietan Internet bidez idazkiak eta agiriak aurkezteko, kopiak lekualdatzeko eta jakinarazpenak bidaltzeko sistema ezarriko da.

Hitzarmenaren helburu nagusia webgune espezifiko bat egitea da. Webgune horrek hau egiteko aukera emango du: organo judizialek Justiziako profesionali jakinarazpenak Internet bidez bidaltzea, eta profesional horiek, sisteman ziurtagiri digital baten bidez identifikatu ondoren, tratatu beharreko espediente judizialak eskuratu ahal izatea, organo horientzako idazkiak Internet bidez aurkeztea eta Justiziako profesionalak beren epaiketa egunak jasota dituzten agenda Internet bidez ikustea.

Sinatutako protokoloak diotenaren arabera, hitzarmena izenpetu duten instituzioek hitz eman dute beren eskumenak baliatuz, ahalik arinen, bitarteko elektronikoen bidez jakinarazpen judizialak zein idazkiak aurkezteko eta onartzeko eta organo judizial guztietan Nafarroako Foru Erkidegoaren jurisdikzioko kopiak lekualdatzeko sistema ezartzeko ekintzak burutuko dituztela.

Sistema pixkanaka ezarriko da Erkidegoko organo judizialetan eta datorren apirilaren 5ean jarriko da abian Nafarroako Probintzia Auzitegian.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, Justizia eta Modernizazio eta Administrazio Elektronikoko Zuzendaritza Nagusien bidez, tresna teknologikoak behar bezala erabiltzeko eta maneiatzeko behar den

prestakuntza eskainiko du justiziako profesionalek maiz erabil ditzaten.

Justizia Auzitegi Nagusiak, horrez gain, Nafarroako organo judizialei tresna horien erabilera errazteko eta erakusteko egin beharreko ekintzak burutzeko konpromisoa hartu du. Hala, jakinarazpen elektronikoak ezartzeko eta erabiltzeko eta idazkiak Internet bidez aurkezteko beharrezko tresna juridikoak sustatzen ditu.

Bestalde, Iruñeko Abokatuen Elkargoak eta Nafarroako Prokuradoreen Elkargoak hitz eman dute beren elkargokideen artean Justizia Administrazioarekin harremanetan jartzeko sistema teknologikoak eta tresna elektronikoak sustatu eta zabalduko dituztela. Horren helburua tresna horiek ahalik azkarren eta modu eraginkorrenean ezartzea lortzea da.